

Alberto González Acha

*Eibar, Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea

Biografia



Eibarren, Isasi kalean jaio zen 1935an. Amak "Arma Probaderoan" egiten zuen lan eta gerrate garaian herritik alde egin behar izan zuten, "Probaderoarekin" batera. Itzuli zirenean, euren etxean beste batzuk bizitzen zeudenez, Ermura alde egin behar izan zuten. Hantxe ezkondu zen Higinia Solozabal bolibartarrarekin eta lau seme-alaben aita da. Ziortza-Bolibarko andrearen "Anittu-Goiko" baserrian bizi zen elkarriketa sasoian. Ermua zein Eibarkoak dira bere ume eta gaztetako gogorapenak.

Zintak

EIB-010

- **Proiektua:** Ermuko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Data:** 2004-08-31
- **Iraupena:** 81 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar
- **Emalea:** Gonzalez, Esti

EIB-051

- **Proiektua:** Ermuko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Data:** 2008-04-20
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Emalea:** Gonzalez, Esti

EIB-070

- **Proiektua:** Ermuko eta Mallabiko "Drogetenitturri" aldizkaria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Data:** 2002-08-09
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Gonzalez, Esti

EIB-071

- **Proiektua:** Ermuko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Data:** 2001-08-08
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Gonzalez, Esti

EIB-094

- **Proiektua:** Ermuko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-11-03
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

EIB-095

- **Proiektua:** Ermuko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-11-03
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV

EIB-681

- **Proiektua:** Eibarko ondare industrialak

- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Data:** 2019-09-29
- **Iraupena:** 75 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gaston Balerdi, Izaskun

EIB-682

- **Proiektua:** Eibarko ondare industrial
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Data:** 2019-09-29
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Gerran, Eibartik ihesi

- **Erref:** EIB-010/002
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:00:38. **Bukatu:** 00:04:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Jaio eta urtebetera gerra hasi zen. Amak, Eibarko armen probaderoan lan egiten zuen. Anai-arrebak Frantziara bidali zituzten baina bera amarekin eta amonarekin gelditu zen, 9 hilabete zituelako. Probaderoa Eibartik atera eta Bilbora eraman zuten lehenengo, eta gero Santanderrera, Gijonera eta azkenik Bartzelonara. Ama, babeslekuetatik ateratzen zen janari bila.

2. Gerratik bueltan, etxerik ez

- **Erref:** EIB-010/003
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:04:23. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Gerra amaitu zenean Eibarko etxera itzuli zirenean, beste pertsona batzuk zeuden bertan bizitzen. Ermuan pisu zahar bat erostea lortu zuen amak eta Gasteiztik ekarri zituen altzairu zahar batzuj. Frantzian erbesteratuta zeuden osaba-izebak ere bueltatu ziren orduan.

3. Orbearrek gosaltzen ematen zioten

- **Erref:** EIB-010/004
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:10:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostean, Alberto Larrondora (Derio) eraman zuten ikastera baina amona gaixo zegoenez, Eibarrera bueltatu zen. Akolito bezala ibiltzen zen Eibarko ospitalean eta Orbeako kaperetan, eskolara joan aurretik. Orbean gustora zegoen eta jaten ematen zioten, baina ospitalean gose asko pasatzen zuten eta zerrien jana lapurtzen ibiltzen ziren.

4. Eibarko ospitaleko mojen krudeltasuna

- **Erref:** EIB-010/006
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:10:23. **Bukatu:** 00:14:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Eibarko ospitalean oso gaizki pasatzen zuten gerra ostean. Zigor moduan, ur hotzetan sartzeri behartzen zituzten. Hildakoen gorpuan zeuden gelan egotera zigortzen zituzten ere, eta amak bisitan joaten zenean gainontzeko umeek esaten zioten txango batean zegoela. Beldur handia pasa zuen Albertok. Piper egiteagatik zigortua.

5. Akolito bezala lan asko egina

- **Erref:** EIB-010/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Ohean pixa ez egiteko eta gabez esna egoteko, zakila hari batez lotzen zioten mojek. Eibarko ospitalean Don Esteban zen abadea. Hiru anai ziren eta haietako bat gaixorik zegoen etxean. Egunero joan behar ziren beregana jauna ematera, Orbeako kaperara joan aurretik.

6. Trenean tente arropak ez zimurtzeko

- **Erref:** EIB-010/009
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Prozesio egunetan, mojek akolituak txukuntzen zituzten parrokiara joateko. 1950 inguruan, Donostian kongresu eukaristiko bat egon zen eta hara eraman zituzten. Arropak ez zimurtzeko, trenaren bidaia osoa tente egin zuten.

7. Arrateko elizan lotan euria zela eta

- **Erref:** EIB-010/011
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:18:29. **Bukatu:** 00:19:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:

Udan, Arratera joaten ziren mojen udalekuetara. Behin, eguraldi oso txarra egin zuen eta elizan babestu behar izan zuten.

8. Gerran errexisatutako altzariak, mojen ospitalean

- **Erref:** EIB-010/013
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:19:53. **Bukatu:** 00:21:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Eibarko ospitalean bazegoen Sor Guadalupe izeneko moja on bat. Ospitalean altzairu onez betetako gela bat zegoen eta behin, Alberto hoietako batean eserita zegoela Sor Guadalupe sartu zen. Azkar zutitu bazen ere, mojak esan zion lasai esertzeko, beraien etxeko altzariak zirelako. Albertok etxean kontatu zuenean, amak esan zion errexisatutako etxeko altzariak ospitalean zeudela.

9. Amak nola atera zuen mojen ospitaletik semea

- **Erref:** EIB-010/015
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:24:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Albertoren amak ez zekien semeak nola sufritzen zuen mojekin bizitzen. Berehala joan zen semearen bila eta hark jantzita zeraman ospitaleko jertse bat mojarri aurpegira bota zion eta sema bertatik atera zuen.

10. Orbearrek bizikleta oparitu zioten

- **Erref:** EIB-010/017
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:24:23. **Bukatu:** 00:26:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Orbearren kaperan akolito egoten zen goizetan eta eskolara askotan ez ze garaiz heltzen. Zigortu egiten zutenez, ospitalera berandu heltzen zen eta mojek ere zigortu egiten zuten. Orbearrei kontatu zienean, hauek bizikleta bat oparitu zioten. Mojen egoitza utzi zuenean, ezin izan zuen bizikleta hura berarekin eraman.

11. Orgatilarekin enkarguak egiten

- **Erref:** EIB-010/019
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:26:25. **Bukatu:** 00:28:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Hamaika urterekin ez zuen gehiago ikasi naiz eta Mateo osabak lan egiten zuen lantegian hasi zen enkarguak egiten. Hamazazpi urtera arte egon zen bertan eta azkenean trokelista lanak ere ikasi zituen.

12. Ugazabarekin liskarra

- **Erref:** EIB-010/020
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:28:34. **Bukatu:** 00:32:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Trokelak jartzen ikasi zuenean, langile askok laguntza eskatzen zioten. Holako batean, Santos ugazaba ikusi zuen puntzoia alderantziz sartzen. Esan zionean, liskarra izan zuen berarekin eta osabak (lantegiko arduradunak) kalera bota zuen. Santos ugazabaren aita bila joan zitzaion lantegira bueltatzeko baina Albertok ez zuen nahi izan.

13. Lantegien arteko espioitza Eibarren

- **Erref:** EIB-010/022
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:32:11. **Bukatu:** 00:35:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Juanito Betaondok osaba bat zuen BHN eta bertara joan ziren biak bizikleta bat

erostera. Hori jakinda, osabak esan zion ikusteko nola ematen zioten haria gurpilaren ardatzari eta gero berari esateko. BHn ere, ingeniuru aleman bat zegoen eta Albertok gogoan du nola beste lantegi batzuk espiatzen zituen, lan-prozesuak ikusteko.

14. Kupotik gorako piezak estraperloan salgai

- **Erref:** EIB-010/026
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:37:58. **Bukatu:** 00:39:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Ermuako Urreta lantegian kupo bat behar izaten zen Bilboko labe garaietara saltzeko. Kupotik kanpo geratzen zena, estraperloan saltzen zen. Urretako nagusiak diru bat agindu zion Felix "Asto"-ri eta gero ez zion ordaindu. Ondorioz, Albertok lantegia utzi eta Eibarko Starrera joan zen lanera.

15. Star lantegitik arma probaderora

- **Erref:** EIB-010/028
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:39:37. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Star lantegian lanean zebilela, arma probaderoko Don Carlos ugazabak lana eskaini zion. Star lantegian oso gustora zegoen Alberto, mekanika sailean. Gainera, Armeria Eskolan ikasteko aukera ere eman zioten. Gustora egon arren, amak ere arma-probaderoan lan egiten zuenez, Don Carlosek lana eskaini zionean bertara joan zen Alberto lanera.

16. Armeria Eskolako abestia

- **Erref:** EIB-010/030
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:44:13. **Bukatu:** 00:44:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Armeria Eskolan kantatzen zutena abesten du.

17. Adingabeko guztiengatik zerbait kobratzen zen

- **Erref:** EIB-010/032

- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:45:07. **Bukatu:** 00:47:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Hemezortzi urtetik beheragoko seme-alabengandik zerbait kobratzen zen gobernunik garai batean. Albertoren amonak kobratzen zuen hori baina beste batzuen ezin ikusiak zirela eta, kendu egin zioten Starren arduradun bezala lanean egon zenean. Gero, probaderora joan zenean, amak paperak egin zituen berriz ere diru hori kobratzeko.

18. Orozkoneko etxean laguntzen

- **Erref:** EIB-010/033
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:47:59. **Bukatu:** 00:50:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Lantegitik irtetzean bizilagunen baserrian, "Orozkonekoan" laguntzen zuen.

19. Baserriko lanak asko gustatzen zitzaizkion

- **Erref:** EIB-010/035
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:50:59. **Bukatu:** 00:52:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak

Laburpena:

Orozkonekoan goizero ama lapikoa uzten zuen lanera joan aurretik eta etxeko andreak, Agustinak, egosi egiten zuen. Orozkoneko baserrian Albertok ganaduarekin eta beste lan batzuekin laguntzen zuen. Baserriko lanak gustoko zituen.

20. Piezak erosi eta bizikleta bat muntatu zuen

- **Erref:** EIB-010/037
- **Iraupena:** 0:05:31. **Hasi:** 00:53:20. **Bukatu:** 00:58:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Garai batean, Ermuan bizikletak egiteko pieza guztiak egiten ziren eta Albertok piezak erosi eta bizikleta bat muntatu zuen. Bere anaiarekin liskarrak

zituen berak ere erabili nahi zuelako eta amak, Eibarko Salaberria dendan bizikleta bat erosi zuen. Anaiak erabili zuen bizikleta berria soldaduzkara joan arte eta gero saldu egin zuen. Albertok, geroago Lambretta bat erosi zuen.

21. Don Poliren Lolita zaldia

- **Erref:** EIB-010/039
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:58:57. **Bukatu:** 01:00:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

Areitioko Don Poli egunero joaten zen Eibarrera eta Alberto berareki hasi zen joaten ere. Kaltxangon jasotzen zuen gurdian, txilinak zituen zaldi batean agertzen zen, Lolita izenekoa.

22. Frantsezekin hizkean frantsesa jakin gabe

- **Erref:** EIB-010/042
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:02:23. **Bukatu:** 01:03:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Behin frantsez batzuekin elkartu ziren mendian eta Juanito Betiondok frantsesez egingo balu bezala hitz egin zien.

23. Kamioietara igotzen ziren Eibartik Ermuara joateko

- **Erref:** EIB-010/044
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:03:39. **Bukatu:** 01:05:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Garai batean, Isasi kaleak aldapa gehiago zuen eta kamioiek gorako bidea egiten zuten poliki-poliki. Alberto eta lagunak zain egoten ziren kamioietara noiz igo, gero Ermuara jeisteko. Behin, mikeleteek kamioia geratu eta salto egin behar izan zuten.</p>

24. Garbantzu egosiak banan-banan batzen

- **Erref:** EIB-010/046
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 01:05:33. **Bukatu:** 01:08:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Agustin Carballo alargun gelditu zenean, Albertoren amak jatekoa prestatzen zion eta Albertok bizikletan eraman. Behin, erori eta lapikoak buelta ematu zuen. Garbantzua batu zituen eta Agustinek ezer esan gabe jan zituen.

25. Ipurdia labaderoan sartuta perdigoi baten ondorioz

- **Erref:** EIB-010/048
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:09:07. **Bukatu:** 01:10:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Sosola baserriaren azpian baserri handi bat zegoen. Behin, han mahatsak jaten zebilela perdigoi bat bota zioten eta korrika jeitsi zen ospitale alboko labaderora, ipurdia uretan sartzeko.

26. Sagarrak lapurtzen

- **Erref:** EIB-010/049
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:10:24. **Bukatu:** 01:11:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Karabieta inguruetan sagarrak lapurtzen ibiltzen zen umetan.

27. Ibiltzeko baimenak banatzeagatik fusilatua

- **Erref:** EIB-010/052
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:13:27. **Bukatu:** 01:15:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Albertoren aitona, tranbia aereoan erabiltzen duten kojinetean asmatzailea izan zen. La Arboledan egon zen bizitzen denbora batez eta hor jaio zen Albertoren ama ere. Osaba Eugeniok, Eibarko Udalean ibiltzeko baimenak banatzen zituen. Gerra ostean fusilatu egin zuten.

28. Gerratik bueltan etxea okupatuta

- **Erref:** EIB-094/003
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:02:26. **Bukatu:** 00:04:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Amarekin alde egin zuen Eibartik gerra denboran. Xixoneraino hasieran, eta barkuz Bartzelonara handik. Han egon ziren gerra amaitu arte. Eibarrera itzuli zirenean beste familia batek zuen beren etxea hartuta. Ermura joan behar izan zuten bizitzera.

29. Eibarko etxeko ganbarara bisita

- **Erref:** EIB-094/004
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:04:38. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Eibarko etxearen oroitzapen bakarra du: behin amarekin ganbarara igo zen. Han ikusi zituen aitak txori txikiak hazteko erabilitako kaiolak. Urte batzuk geroago, Eibarrera itzuli ziren bizitzera.

30. Aita Madrildik Arboledara eta Eibarrera

- **Erref:** EIB-094/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » Gerra aurea » 1923-1931: Primo de Rivera

Laburpena:

<p>Aita Madrilgoa zen. Arboledara etorri zen lehendabizi meatzetara, eta handik Eibarrera. Burdina meatzeei buruzko azalpenak.</p>

31. Ama arma probalekuan lanean

- **Erref:** EIB-094/007
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:09:12. **Bukatu:** 00:11:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

<p>Amak "Banco de Pruebas" en egin zuen lan aita gaixotuz gero. Probalekuko lana nolakoa den azaltzen du. Andrazkoek paper-kontuak eramaten zituzten batez ere.</p>

32. Eskua emanda egindako tratuak baliorik ez

- **Erref:** EIB-094/008
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:11:16. **Bukatu:** 00:12:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Etxea hartuta zegoen erbestetik itzuli zirenean. Orduan askotan ez zegoen jabetza-paperik, eskua ematea aski tratua egiteko. Ezin jakin nola eskuratu zuten besteek etxea, saltzailea hilda zegoelako.

33. Mojekin hazi eta 11 urterekin lanera

- **Erref:** EIB-094/009
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:12:24. **Bukatu:** 00:13:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Ama alarguna zenez, hiru anai-arrebak leku ezberdinetan hazi ziren: bera, Eibarko ospitalean mojekin. 11 urterekin hasi zen tailerrean lanean.

34. Armeria eskolako ikasleen kantua

- **Erref:** EIB-094/010
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:13:44. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:

Instrukzioa erakusten zuten Armeria Eskolan soldadu joan aurretik. Ikasleek eskola hartako maisuez ateratako erdarazko kantua kantatzen digu.

35. 11 urterekin lanera

- **Erref:** EIB-094/013
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:19:22. **Bukatu:** 00:22:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Koinatua trokelista zuen eta eskola gehiegi gustatzen ez zitzaionez, lanean hasi zen harekin 11 urte zituela. Hasieran pintxe lanetan. Erraztasun handia zuen mekanikarako. 19 urterekin arma probalekua lanean hasi eta 46 urte egin zituen. Fabrikako txofer, gehienbat.

36. Baserrian laguntzen

- **Erref:** EIB-094/014
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:22:52. **Bukatu:** 00:25:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Lanetik irten eta gero, baserri batera joaten zen laguntzera. Askok gustatzen zitzaion baserriko lana. Etxeko egin zen baserrian. Baserritarra hartu zuen andrea.

37. Ermua, herri txikia

- **Erref:** EIB-094/016
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:25:33. **Bukatu:** 00:27:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Ermuko kalean 12 baserri zeuden. Oso txikia zen herria. 3-4 kale. Ego erreka, erreka garbia, ezkailuak eta denetik zegoen.

38. Ermu kaleko baserrien izenak

- **Erref:** EIB-094/017
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:27:36. **Bukatu:** 00:30:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

<p>Baserri-izen denak gogoratzen ditu: Santukua, Trake, Karabixa. Erdirago: Antonatxa. Motxu, Otxua, Arrako, Sinko, Txantxikua, Orozko eta Torreta. Pixka bat aparteago: Abeletxe, Elorreta. Eibar eta Ermuaren mugan dago Elorreta. Baserri horren bitxikeria. Beste batzuk: Ongarai, Betiondo, Ureta, Josio.</p>

39. Ermua eta Benidorm, gehien hazi ziren herriak

- **Erref:** EIB-094/018
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:32:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Baserriek beren lurrak saldu zituzten etxeak egiteko. Baserriko gizonak tailerretan hasi ziren lanean. 1.000 biztanle inguru zituen gerra ostean. Benidorm baino gehiago hasi zen sasoi batean Ermua.

40. Pikatxoi eta palaz lurra kentzen

- **Erref:** EIB-094/020
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:32:56. **Bukatu:** 00:34:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Orduan (1950 ingurua) ez zegoen hondeamakinarik. Gailegoek pikatxoi eta palaz lur kentzen. Istripuak sarri. Horrela egindakoak dira Eibarko eta Ermuko auzo asko.

41. Ermuko lantegiak

- **Erref:** EIB-094/021
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:34:41. **Bukatu:** 00:37:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Bizikletentzat pinoiak-eta egiten zituzten Urreta lantegian. Iriondo, Salaberria... beste tailer batzuk. Gerra aurretik armagintza ere bazegoen baina gero bizikleta-piezak batez ere. Plantxak ere bai, Ufesa Ermuan sortu zen.

42. Txiskero fabrika

- **Erref:** EIB-094/023
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:38:34. **Bukatu:** 00:39:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Txiskeroak egiteko baimen berezia behar zen. Kupoa zegoen eta ezin izendatutakoak baino gehiago egin. Pospoloekin ere antzekoa gertatzen eiz zen, estatuaren gauzak zirelako.

43. Star fabrika

- **Erref:** EIB-094/024
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:39:45. **Bukatu:** 00:41:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Star arma fabrian ibili zen gaztetan. 300 bat langile. Pistolak, subfusilak eta horrelakoak egiten zituzten. Eskuz, lima erabiliz, egiten zen lan asko.

44. Armen probalekua

- **Erref:** EIB-094/025
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:41:22. **Bukatu:** 00:42:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

<p>Espainia osoko armak probatzeko leku ofiziala zegoen Eibarren. Atzerrian egindako armak ere Eibarren probatzen dira. Arma asko probatzen zen egunero.</p>

45. Armen probalekuko lanak

- **Erref:** EIB-094/026
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:42:52. **Bukatu:** 00:45:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

<p>Armari sarrera eman lehendabizi, zenbakia hartu, eta gero hiru lagunek ikuskatzen zuten. Ajusteak, kanoiaren lodiera eta abar.</p>

46. Emakumeen lanak

- **Erref:** EIB-094/027
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:45:20. **Bukatu:** 00:46:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

<p>Kartutxoak bertan egiten zituzten, eta emakumeen lana zen muntatzea. Emakumeek ez zuten armarik probatzen.</p>

47. Nolakoa zen arma probalekua

- **Erref:** EIB-094/028
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:46:43. **Bukatu:** 00:49:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

<p>17 urterekin sartu zen. Hiru etxe ziren lantegian. Argazkia erakusten du. Zeharo aldatuta dago orain ingurua. 53. langilea zen bera sartu zenean.</p>

48. Militarrek zuzendari

- **Erref:** EIB-094/029
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:49:10. **Bukatu:** 00:51:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Militarrak ziren agintariak. Haiek kontrolatzen zuten. Baina izatez probalekua armagile guztiena zen. Nola sortu zen probalekua egiteko ideia. Espainian bakarra.

49. Harreman ona militarren eta zibilen artean

- **Erref:** EIB-094/030
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:51:50. **Bukatu:** 00:54:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Harreman ona zuten agintari militarrekin. Beti armagilearen alde egiten ei zuten. Errespetua. Santa Barbara egunean ospatzen zuten armagileen eguna. Militarrak eta guardia zibilak galoiekin ibiltzen ziren.

50. Autoritateak eta beharginak elkarrekin bazkaltzen

- **Erref:** EIB-094/031
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:54:55. **Bukatu:** 00:57:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Autoritateek eta beharginek elkarrekin bazkaltzen zuten inoiz Santa Barbara egunean. Berari oso ugazaba onak egokitu zitzaizkion.

51. Armagintzako zuzendariak

- **Erref:** EIB-094/033
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:58:05. **Bukatu:** 00:59:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Zuzendaria eta zuzendari ordea ingeniariak ziren. "Maestro Armeroa" eta abar ere trebakuntza handikoak ziren. Zuzendarien izenak.

52. Gerraurreko Eibar oso txikia zen

- **Erref:** EIB-681/004
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:04:42. **Bukatu:** 00:06:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Eibarko "Dos de Mayo" kalea (Toribio Etxebarria kalea gaur egun) errekak zeharkatzen zuela gogoan dauka. Garai bateko "Generalísimo" kalea, Berdura plaza eta Elgeta bidea ditu hizpide. Txikia zen Eibar gerra aurretik; gerraosteko berreraiketa garaian hazi zela kontatzen du. Beistegui Hermanos, Aurrera, Orbea, Star eta ALFA bezalako lantegi handiak izendatzen ditu.

53. Beste jornaltxo bat ateratzeko, tailer batetik bestera ibiltzen ziren

- **Erref:** EIB-681/005
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:06:56. **Bukatu:** 00:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Gerraostean etxe ugari eraiki eta lantegi txiki asko sortu zela dio. Langile pila etorri zen kanpotik lanera. Aparteko orduak sartzea eta tailer batean baino gehiagotan jardutea ohikoena zela kontatzen du. Lana soberan zegoen hazten ari zen herrian.

54. Langile etorkin guztientzako zegoen lana

- **Erref:** EIB-681/007
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:09:18. **Bukatu:** 00:11:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

60. hamarkadako boom industrialaz eta langile etorkinen jatorriaz hitz egiten du. Galiziatik etortzen ziren batez ere baina, baita Burgos, Valentzia eta Extremaduratik ere. Udako oporren ostean, joandako langile kopuruaren bikoitza bueltatzen zela kontatzen du eta, hala ere, guztiek topatzen omen zuten lana. Haien bizimoduaz eta bertakotzeaz dihardu.

55. Eibarko lantegietako ekoizpena

- **Erref:** EIB-681/009
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:13:03. **Bukatu:** 00:15:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Arma fabrika asko zegoen Eibarren. Handienak izendatzen ditu. 1000 eskopetatik gora frogatzen zen eguneko Eibarko saiakuntza-banku ofizialean (probaderoa). Galdategi eta forjak ere baziren eta baita automobilgintzarako piezak ekoizten zituzten lantegiak ere.

56. Renault-i muzin egin zion ALFAk

- **Erref:** EIB-681/010
- **Iraupena:** 0:04:54. **Hasi:** 00:15:12. **Bukatu:** 00:20:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ibilgailu-industria
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneneko lantegiak

Laburpena:

<p>Valladolidetik zetorren ingeniari baten txofer zebilela, ALFA eta Lambretta lantegiek galdu zuten aukera paregabearen lekuko izan zen. Izan ere, Renault markarako motorrak ekoizteko aukerari ez zioten jaramonik egin. Ingeniaria joaten zen lantegi guztietara sartzen zela kontatzen du. Gustukoa zuen haiek barrutik ikustea.</p>

57. Eibarko bizikletagintza

- **Erref:** EIB-681/011
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:20:06. **Bukatu:** 00:21:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Bizikleta ekoizpen handia zegoen Eibarren. Marka desberdin ugari izendatzen ditu: Orbea, Luis Iriondo, BH, Cil, Etxasa, Abelux... GAC markak "Mobylette" motor-bizikleta ekoitzi zuen eta "Electrociclos" zeritzon lantegian auto elektrikoak egiten zituztela kontatzen du (1940-1953). Nahiz eta gaur egungo asmakaria iruditzen zaigun, 50. hamarkadan Eibarren auto elektrikoak egiten zirela dio.

58. "El Casco" markako arkatz-zorrozkailua

- **Erref:** EIB-681/012
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:21:36. **Bukatu:** 00:22:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Torlojugintzako fabrikak nonahi aurki zitezkeen Eibarren. "El Casco" lantegiak ekoiztutako arkatz-zorrozkailu baten funtzionamenduaz dihardu.

59. "Eibarren ez dena egin, ez dago"

- **Erref:** EIB-681/014
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:25:54. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Ilea mozteko besaulkiak, organoak edo telebistak. Eibarren egin ez denik ez dagoela dio Albertok. "Los claveles" markako ilea mozteko tresna dauka esku artean. Kalibreak, "Imperial" idazmakinak, "ABC" konpresoreak, "IMIGAS" berogailuak, "JATA" eta "SOLAC" etxetresna elektrikoak, etab.

60. Ume-umetatik probaderoan

- **Erref:** EIB-681/015
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:33:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Eibarko saiakuntza-banku ofizialeko txoferra izan zen Alberto 47 urtez. 17 urte zituela hasi zen lanean baina, umea zenetik ezagutzen du. Gazte alargundu zen ama. Hark ere probaderoan lan egiten zuen eta bertara eramaten zioten Alberto, jaio berria zela, titia har zezan. Begia zabaldu zuenetik ezagutzen duela kontatzen du. Gerora, eskolatik irteten zenean ere, probaderoan itxaroten zion amari lanaldia amaitu bitartean. Umetako oroitzapen politak ditu.</p>

61. Probaderoako beharrari buruz: proba desberdinen prozesua

- **Erref:** EIB-681/016
- **Iraupena:** 0:06:20. **Hasi:** 00:33:29. **Bukatu:** 00:39:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Langile asko zeudela kontatzen du: gizonezko eta emakumezkoen eginbeharrak desberdinak izaten ziren. Argazki bat eskuetan, pertsona bakoitzaren egitekoaz dihardu. Zer eta zertarako egiten zen. Kalibre desberdinak izendatzen ditu, munizio mota desberdinak eta bakoitza zertarako erabili ohi zen.</p>

62. Erabilezin bihurtze ziurtagiriari buruzko azalpenak

- **Erref:** EIB-681/017
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:39:49. **Bukatu:** 00:42:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Aurrekargako eskopeta eta honen erabilezin bihurtze ziurtagiriari buruzko azalpenak ematen ditu. Ziurtagiri hori Eibarko saiakuntza-banku ofizialean bakarrik lor zitekeen.

63. Probaderoako kartutxoak bereziak izaten ziren

- **Erref:** EIB-681/018
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:42:30. **Bukatu:** 00:46:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>Kartutxoak kargatzea emakumezkoek egiten zuten lana izaten zen. Kartutxoak egiteko prozesuari buruz dihardu: bolbora, takoa, perdigoia... Ehizarako egiten ziren kartutxo arruntek eta probaderoan, armak probatzeko egiten zirenek, zerikusirik ez zutela kontatzen du. Kartutxo berezi haiek eragindako kalte posibleak neurtu behar zituzten saiakuntza-bankuko frogetan, horregatik izaten zuten ohikoa baino karga handiagoa.</p>

64. Eskopetei egiten zizkieten proba desberdinak

- **Erref:** EIB-681/019
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:46:08. **Bukatu:** 00:49:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

<p>Eskopeta bakoitza berriz aztertzen zen tiro probak egin ostean. Azterketa horretan eskopetan eragindako kalte posibleak bilatzen zituzten. Kalterik bazegoen, atzera botatzen zuten eta fabrikatzaileari itzultzen zitzaion eskopeta konpon zezan.</p>

65. Igeldorako informazio meteorologikoa ere jasotzen zuten probaderoko laborategian

- **Erref:** EIB-681/021
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:51:02. **Bukatu:** 00:53:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Probaderoko laborategian lehertutako kanoiak aztertzen zituztela kontatzen du. Horrez gain, Eibarko euri kopurua, tenperatura, hezetasuna eta antzerako datuak jasotzen ziren eta egunero bidaltzen ziren Igeldoko meteorologia-estaziora.</p>

66. "Andres Unceta" burdindegian edozer aurki zitekeen

- **Erref:** EIB-681/023
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:54:01. **Bukatu:** 00:55:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Probaderoako txoferra zen Alberto. Kaleko mandatu guztiak egiteaz bera arduratzen zen. Eibarko "Andres Unceta" burdindegira joanez gero, denetik aurki zitekeela kontatzen du.

67. Probaderoako seilua estatuan ekoizitako arma guztietan

- **Erref:** EIB-681/024
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:55:05. **Bukatu:** 00:57:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

<p>Zuzendaritzan militarrek zeuden. Haien karguei eta zereginei buruz dihardu. Estatuan ekoizten ziren arma guztiek Eibarko probaderoako seilua izan behar zuten.</p>

68. "Asociación Armera"

- **Erref:** EIB-681/025
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:57:46. **Bukatu:** 01:01:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

"Asociación Armera" delakoak armagin guztiak batzen zituen. Elkarte honetako hainbat kidek batzorde bat osatzen zuten eta probaderoan ordezkaritza izaten zuten. Batzorde horretako kideak izandakoak izendatzen ditu: Loren Gabilondo, Agustin Aranzabal, Bittor Sarasketa, Irusta, Ugartechea, etab. Armaginen eta militarren artean adostu behar izaten zituzten prezioak.

69. Lau ordainsari jasotzen zituzten

- **Erref:** EIB-681/026
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:01:26. **Bukatu:** 01:02:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Lanerako baldintza onak zeuden probaderoan. Naiz eta soldatak ez ziren oso altuak, aparteko lau soldatak zituztela kontatzen du: uztailak 18an, San Joanetan, urrian eta Santa Barbara egunean. Horiekin konpentsatzen zuten soldata.

70. Tiro-galeria

- **Erref:** EIB-681/030
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 01:04:52. **Bukatu:** 01:09:03

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

<p>Bost metro inguruko zabalera eta berrogeita hamar metroko luzera zuen tiro-galeriak. Galeriaren amaieran, hondartzako harearekin egindako tontorra zegoen eta bertan kokatzen zen itua. Galeria hura ez zen frogak egiteko erabiltzen; kalitate goreneko eskopetei mira jartzeko erabiltzen zuten armaginek. Probaderoko langileek probarako kartutxoaren presioa neurtzeko ere erabiltzen zutela kontatzen du.</p>

71. Istripuak ohikoak ziren probaderoan

- **Erref:** EIB-681/032
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 01:09:28. **Bukatu:** 01:13:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Istripuak gertatzen ziren probaderoan. Bolbora beltza erabiltzen zen kanoiei egiten zitzairen lehenengo proban. Froga bortitzena zen, kanoiak ia landu gabe egiten zen lehen saio hura. Bolbora beltzak su hartu eta hildako bat eragin zuen istripua gogoan dauka.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com